



MIKEL LASA
MEMORY DUMP
(1960-1990)



UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO
EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA



POETA MODERNOAREN ZANTZUAK

FELIPE JUARISTI

Argitaratu berria den liburu honek motiboak ditu interesgarria izateko. Liburuaren beraren azalean hizki handiz azaltzen diren urtedatei erreparatzen badiegu, konturatuko gara hogeitahamar urteko lana dela bertantxe bilduta dagoena, 1960 eta 1990 baitira urte mugarririk, hasera eta amaiera azaltzen dutenak; eta hogeitahamar urte igaro daitezke suspirio baten abiadan, edo bestela, eternoak bihurtu beren mantsotasunagatik.

Euskal literaturaren eta, bereziki, euskal poesiaren erreferentzia izan da Mikel Lasa, 1971ean "Poema Bilduma" argitaratu zuenetik, bere arreba Amaia Lasarekin batera, baina urte batzuk lehenxeago ekin zion poemak idazteari. "Egan" aldizkarian batez ere. Historiaren ikuspegitik begiratuta, garrantzitsua izan zen garai hura, hirurogeigarrenean hasten den hamarkada, zehatzak izateko, zenbait datuk hala baieztatzen dutenez: heldutasunera iritsi zen Miranderen lana: Arestik "Harri eta Herri" argiratu zuen, eta Mikel Lasak osatua zuen bere poemagintzaren hezurdura.

"Memory Dump" liburuak badu, hala ere, bere berezitasunik. Bertan biltzen da gazteleratua "Poema Bilduma" hura, beranduxeago Erein argitaletxean kaleratu zuena, bi poema berriekin, halako eta holako aldizkarien ahantzitik salbatuak, eta gainera, "Osagarriak" izeneko liburua, azken urteotako lana; ezinbestekoa, hau ere, Mikel Lasa bete-betean ulertzeko.

Liburu honen aurkezpenean, Juan Mari Lekuonak "ikertzaile estetiko" tzat jo zuen Mikel Lasa. Izen-adjetiboak ondotox adierazten dute Getariako poetaren izaera: estatikarekiko ardura; sortzeari buruzko gogoeta etengabea. Lehenaren froga dira liburuan ageri diren marrazkiak; bigarrenarena, Rimbaudi buruzko ikerketa, haren poemien interpretazioa.

Mikel Lasa beti izan baita poeta, nahiz denboraldi batean (lur honetakoa infernukoa baino) isitasunaren eremuan gordeta egon, poesia eta bizitza bata bestearen aurrean eta kontrajarrian ageri zitzaizkionetik hitzaren mugarrin.

Moderno, hala ere, orain, lehen eta geroan. Gizon-emakumeen arazoez eta kezkez arduratuta, ibilean dabilen begirada baten jabe.

MEMORY DUMP

Mikel Lasa

Servicio Editorial UPV-EHU, Leioa, Bizkaia.338.orr.